

## **GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL KONTSEILUA 2018KO ABENDUAREN 17ko OHIKO BILKURAREN AKTA**

Bertaratu direnak:

Juan Antonio Fernández jauna, Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzako idazkari nagusia eta Kontseiluko presidentea, lehendakariak eskuordetuta.

Sofía Marroquín andrea, Euskadiko GGKEen Koordinakundeko presidentea eta Kontseiluko presidenteordea.

Paul Ortega jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria.

José Ignacio Bañuelos jauna, Hezkuntza Sailaren ordezkari gisa.

Jesús Losada jauna, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren ordezkari gisa.

Mireia Elkoroiribe andrea, Osasun Sailaren ordezkari gisa.

Jordi Campás jauna, Ogasun eta Ekonomia Sailaren ordezkari gisa.

Ander Añibarro jauna, Enplegu eta Gizarte Politika Sailaren ordezkari gisa.

Mikel Antón jaunak, Lehendakaritzaren ordezkari gisa.

Juanma Balerdi jauna, Euskal Fondoa ordezkatzuz.

Mila Domínguez andrea, Josu Urrutia jauna, Santiago Martínez jauna, Eneko Gerrikabeitia jauna, Iñaki Orube jauna, María del Mar Magallón andrea, Irene Molero andrea eta Natalia Rodríguez andrea, Euskadiko GGKEen Koordinakundearen ordezkari gisa.

Elsa Fuente andrea, Patricia Bárcena andrea, Carlos Askunze jauna, Gorka Urrutia jauna eta Igone Revilla andrea, garapenerako lankidetzaren alorreko beste euskal eragile sozial batzuen ordezkari gisa.

Noemí de la Fuente Andrea, Kontseiluko idazkaria, hitzarekin baina botorik gabe.

Kontseiluko presidentek gonbidatuta bertaratu dira Ainara Arrieta andrea, koordinazio teknikoaren arduraduna, Pilar Diez andrea, ekintza humanitarioko teknikaria, eta Ana Rojo andrea, aholkulari juridikoaren arduraduna, guztiak ere Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako kideak.

Era berean, foru-aldundietako garapenerako politiken koherentziari buruzko txostena aurkezteko Silvia Piris bertaratu da, berak egin baitu txostena.

Ezin etorria adierazi dute:

Bittor Oroz jaunak, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren ordezkari gisa.

Zuriñe Elordi andreak, Emakunderen ordezkari gisa.

Ana Oregi andreak, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideetako eta Berdintasuneko Batzordearen ordezkari gisa.

Nekane Zeberio andreak, Arabako Foru Aldundiaren ordezkari gisa.

María Guijarro andreak, Bizkaiko Foru Aldundiaren ordezkari gisa.

Fernando San Martín jaunak, Gipuzkoako Foru Aldundia ordezkatzuz

Maite Etxebarria andreak, EUDEL ordezkatzuz.

Iñigo Eguren jaunak, Euskadiko GGKEen Koordinakundearen ordezkari gisa.

Joseba Andoni Sainz de Murieta jaunak, garapenerako lankidetzaren Euskadiko bestelako gizarte-agenteen ordezkari gisa

Lekua: Lehendakaritza

Data eta ordua: 2018ko abenduaren 17a, 12:30

Jonan Fernándezek bertaratuei ongietorria egin die, eta bilkurari hasiera eman dio, 12:44an. Bertaratuen banan banako aurkezpena egin da jarraian. Eta honako gai-zerrenda honi jarraikiz egin dugu aurrera:

- Aurreko bilkuraren akta onartzea
- Euskadiko GGKEen Koordinakundearen txostena, foru-aldundietako garapenerako politiken koherentziari buruzkoa: aurkezpena eta elkarrizketa
- Ekintza Humanitarioko Dekretuaren aginduzko txostena: onespena
- Garapenerako politiken koherentziari buruzko urteko txostenaren erreferentziazko terminoak: elkarrizketa eta proposamena
- GLEAren 2019ko urteko planaren ildoak.
- Hainbat gai, galde-eskeak

## **1. AURREKO BILKURAREN AKTA ONARTZEA.**

Bertaratuek inolako oharrik egin ez dutenez, akta aho batez onartu da.

## **2. EUSKADIKO GGKEEN KOORDINAKUNDEAREN TXOSTENA, FORU-ALDUNDIETAKO GARAPENERAKO POLITIKEN KOHERENTZIARI BURUZKOA: AURKEZPENA ETA ELKARRIZKETA**

Jonan Fernándezek egin du puntu honen sarrera, adierazi du Nekane Zeberio ez dela bertaratu duela gutxi haur bat izan duelako, eta atsekabez adierazi du foru-aldundietan garatzeko politiken koherentziari buruzko txosten bat izanik hiru ordezkarietako bakar bat ere bilkuran ez dagoela.

Sofía Marroquínek, Euskadiko GGKEen Koordinakundearen izenean, [azterlana](#) aurkeztu du labor-labor. Koordinakundeak Silvia Pirisen eta UNA Gestión enpresaren laguntzarekin egin duen txosten bat da. Azpimarratu du Koordinakundearen lehen txostenetako bat garapenerako politiken koherentziaren oinarritzko printzipioan sakontzea dela, hau da, giza eskubideekin eta giza garapen jasangarriarekin koherentziaz jardutea. Gogorarazi du 2017. urtean Eusko Jaurlaritzaren enpresanazioartekotzeari buruzko lehen azterlan bat aurkeztu zutela, bertan helburuen eta erreminten azterketa bat eginez. Eta azpimarratu du azterlan honek azterketa-esparru bat proposatzen duela, politika publikoak garapenerako politiken koherentziaren esparruan aztertzeke.

Silvia Pirisek azterlana aurkeztu du. Adierazi du hasierako proposamena zela hiru aldundietan politika espezifikoko baten azterketa konparatibo bat egitea. Baina lantze-prozesuan helburua moldatuz joan zela eta amaierako produktua azterketa-erreminta bat dela, politikak giza garapen jasangarriko ikuspegiarekin bat datozen jakiteko eta

neurtzeko galdera esanguratsuak bilduz; eta hiru kasu-azterketa, zeinetan erreminta orokorra 25 galdera espezifikotan zehaztuko den aldundi bakoitzaren politika bat aztertzeko: Bizkaian ingurumena, Araban nekazaritza eta Gipuzkoan mendetasuna. Azterketa erakunde bakoitzaren webgunean eskuragarri zegoen informazioa eta dokumentazioa abiapuntutzat hartuz egin zen.

Azpimarratu duenez, hiru aldundien arau-esparruek garapenerako politiken koherentzia aurreikusten duten arren, hiru kasuetan giza garapen jasangarria ez da erreferentziatzko ikuspegi bat. Eta politika gehienek hazkunde ekonomikoa jartzen dutela oinarrian. Era berean azpimarratu du proposatutako azterketa-esparruak potentzialitate handiagoa duela begirada horizontalerako (politiken koherentzia nola dagoen zeharkatuta politika publikoaren osotasunean) azterketa bertikalerako baino (nola txertatzen den politika jakin batean).

Jonan Fernándezek galdetu du azterlanaren xedea erreminta hori sortzea izan ote den, edota aldundiei hobekuntza-proposamenak egin zaizkien. Silvia Pirisek erantzun dio erreminta hori batez ere erreminta pedagogiko bat dela, eta ez hainbeste ikerketa-tresna bat. Eta dokumentuez haraindi informazioa lortzeko zailtasunak ez duela gomendioak egitea ahalbidetzen. Natalia Rodríguezek, Koordinakundearen izenean, gaineratu du matrizearen galderak adierazle bihur daitezkeela, eta adierazle horiek ikuspegia politika jakin batean txertatzeko moduari buruzko pistak eman ditzaketela.

Patricia Bárcenak galdetu du aldundiak azterketaren xede izan ote diren soilik, edota erreminta erabiltzeko konpromisoren bat ba ote dagoen. Natalia Rodríguezek erantzun dio euren dokumentu estrategikoen arabera hiru aldundiek koherentzia-ikuspegia txertatzeko asmoa dutela. Eta, erakundeek gaia lantzen hasteko topatzen dituzten zailtasunez jabetuz, beste ekarpen bat gehiago izan nahi zuela. Koordinakundeak aurreikusi du ahal den neurrian eragina izan nahi duela hori txerta dezaten lortzeko. Baina Diputatu Nagusiaren Kabinetean ez badute agindu hori beren gain hartzen, zaila da. Silvia Pirisek gaineratu du zaila dela administrazioaren zati handi batentzat ezezaguna den eta lankidetzaren politikari oso lotuta dagoen ikuspegi bat posizionatzea, eta gainera administrazio osoan barneratzea. Erremintaren izaera pedagogikoa honako hau da: lagungarria izan daiteke ulertzeko garapenerako politiken koherentziak ez duela soilik lankidetzan eragiten, izan ere, Euskadin politiketan eragina duela.

Iñaki Orubek galdetu du erreminta horrekin eman beharreko hurrengo pausoak zein izango lirakeen. Silvia Pirisek iradoki du adierazle-formatua ematea eta gehiago zehaztea. Adierazi du politika baten azterketa bertikala oso indartsua dela, baina benetan interesgarria dena begirada integral baterantz aurrerapausoak ematea dela, politikek zein ikuspegi erantzuten dieten, beraien artean dagoen gurutzatzeko gunea eta lehentasunak nola ezartzen diren aztertzea, alegia.

Noemí de la Fuentek galdetu du matrizea edozein erakunderi aplikatzeko modukoa ote den; eta, GLEKek egin behar dituen urteroko txostenen lanketari begira, esperientzia horretatik ondorioren bat ateratzen ote den azterketa sektorialak edo integralak, konparatiboak nahiz ez, egiteko bidezkotasunari buruz. Sektoriala edo begirada integrala; konparatiboa ala ez-konparatiboa.

Silvia Pirisek erantzun dio matrizea aldundietarako espezifikoa dela. Ikaskuntzei dagokienez honako hau azpimarratu du: (i) azterketa dokumentala baliozkoa da, baina ez da nahikoa; (ii) politika bakar bat aztertzeak administrazio osoarena ez den argazki bat eman dezake.

Jonan Fernándezek Silviari azalpena eta Koordinakundeari proposamena eskertu dizkie.

### **3. EKINTZA HUMANITARIOAREN DEKRETU-PROIEKTUARI BURUZKO AGINDUZKO TXOSTENA: ONESPENA**

Jonan Fernándezek sarrera bat egin ondoren, Noemí de la Fuentek gogorarazi du txostena egiteko prozesua nola gauzatu den. Eta argitu du txosten-proposamenaren bertsio berri bat entregatu zaiela, non ALBOAN erakundeak egindako ekarpenak txertatu diren, batzorde iraunkorrak txosten-proposamena landu zuenean oraindik ez baitziren jaso.

Sofía Marroquínek 7. ekarpenean UNICEF tokiko bazkide eta erakunde onuradun gisa erabiltzeari buruz galdetu du. Ainara Arrietak argitu du dekretu-proiektuan diru-laguntzei buruzko Legean ezartzen den nomenklatura erabili dela, eta “erakunde onuraduna” terminoa erakunde eskatzaileari dagokiola.

Maria del Mar Magallónek argitu du ALBOAN erakundeak Koordinakundearen ekarpenak bere egiten dituela, baina ondoren hainbat ekarpen bururatu zitzaizkiela, horietako batzuk formari lotuta, eta hainbat zuzenketa. Egindako proposamen berriak ez daude Koordinakundearen proposamenekin kontraesanean; osagarriak izango liriteke. Eta egindako ekarpenetako bakoitzaren aurkezpena egin du.

Elsa Fuentek, 6.2 artikuluari dagokionez, proposatu du lehentasun sektorial eta geografikoak dekretuan ezar daitezela eta ez deialdian. Diruz lagundu daitezkeen gastuei dagokienez, proposatu du ehuneko orientatzaileak adieraz daitezela hainbat partidatan, adibidez pertsona-gastuen edo zeharkako kostuen partidatan, deialdiaren aurretik proposamenak lantzeko lagungarriak izan daitezzen. Eta aginduzko txostenaren 13. puntuan, Nazio Batuetako organismoek duten justifikatzeko moduarekin bat etorritik, iradoki du salbuespen-izaera inkorpora dadila liburuak, kontuak eta justifikagiriak aurkezteko garaian.

Natalia Rodríguezek adierazi du Koordinakundeak bidali zituen ekarpenak ondo jasota daudela eta neurri handi batean euren ekintza humanitarioko esparru-dokumentuari lotuta daudela.

Bozketa egiteko unea iritsi denez, boto-eskubidea duten pertsonen zenbaketa egin da, eta 18 dira. Eta txostena onetsi egin da aldeko 17 botorekin eta abstentzio batekin.

#### 4. GARAPENERAKO POLITIKEN KOHERENTZIARI BURUZKO URTEKO TXOSTENAREN ERREFERENTZIAZKO TERMINOAK: ELKARRIZKETA ETA PROPOSAMENA

Noemí de la Fuentek aurkezpen bat egin du, GLEKek garapenerako politiken koherentziari buruz urteko txosten bat egiteko agindua duela gogorarazi du, eta [debaterako hainbat hausnarketa](#) planteatu ditu.

Jonan Fernándezek gogorarazi du lehen txostena dugula aurrez aurre eta lehen urrats bat dela, pixkanaka aurrerantz egiteko baliagarria izango dena. Eta bere ustez, lehen debate honetan, soilik Eusko Jaurlaritza aztertu beharko litzatekeela, metodologia misto batekin, erreferentzia gisa Garapen Jasangarrirako Helburuen esparrua hartuz, eta emaitzak ebaluatzeko eta ondoren esku-hartzerako eremuren bat irekitzeko aukera emango digun eremuren bat hautatuz.

Natalia Rodríguezek Koordinakundearen barnean adostutako hainbat gauzaren berri eman du:

1. Lan-talde bat sortzea: garrantzitsutzat jotzen da, baina beharrezkoa da operatiboa izatea. Proposatzen dute lan-talde bat sortzea eta ez batzorde bat, osaerari eta funtzionamenduari dagokienez malgutasun handia ematen digulako (adibidez, parte hartzen dutenek ez dute nahitaez sailburu izan beharko). Eta osoko bilkuraren zeregina amaierako produktua eztabaidatzea izango litzateke.
2. Seriea: txostena urtero egin behar da, eta proposatzen dute esparru teorikoa, lan-plana eta metodologia zehatza ezar daitezela, urtero aplikatzen dadila eta denbora igaro ahala berrikusteko aukera izan dezala.
3. GJHak: adierazten dute garrantzitsua dela jasangarritasunaren irizpidea sartzea, garapen jasangarrirako politiken koherentziari buruz hitz egitea.
4. Xedea: 7 erakunde nagusiak barnean hartzen dituen azterketa egitea proposatzen dute. Hauteskunde-aldiak lehen urtean dimentsio hori oztopatu dezakeen arren, eskatu dute foru- eta udal-eremuak ez ahaztea. Eta azterketa bertikala eta horizontala konbinatzearen alde daude.

Sofía Marroquínek iradoki du txostena checklist bat ez izatea, eta beste administrazio batzuetan gomendioak egiteko, politikak aldatzeko eta koherentzia bultzatzeko baliagarria izatea.

Jordi Campás Ogasun eta Ekonomia Sailaren esperientziarekin bat dator politiken koherentziaren azterketari dagokionez. Haren ustez jardun hori oso baliagarria da. Eta proposatu du koherentziarik eza bereziki deigarria duten gaiak aztertea, gai batean edo bestean lortuko diren aurrerakadak desberdinak izango direla jakitun izanik.

Paul Ortegak proposatu du urtarrileko bigarren astera arteko epe bat ireki dadila lan-taldea eratzeko kandidaturak helaraz daitezela, betiere GLEKen ordezkaturak dauden sektore guztiak barnean hartuz. Proposatu du GLEKeko edozeinek bere burua edo bere ustez gaiari buruz ekarpen handiagoa egin dezakeen beste pertsonaren bat

proposatzeko aukera izan dezala. Noemí de la Fuentek gaineratu du komenigarria izango litzatekeela alderdi guztiak modu paritarioan ordezkaturata egotea. Eta osoko bilkurak beteko duen zeregina definitu beharko litzatekeela.

Sofía Marroquínek proposatu du taldeak ahalik eta modurik autonomoenean funtziona dezala, eta osoko bilkura batez ere kontrastatzeko gune bat izan dadila. María del Mar Magallónek proposatu du osoko bilkurak erreferentziazko terminoak eta txostena baliozkotzea, eta gainerakoa lan-taldearen esku uztea.

Bozketa egin da eta lan-taldea sortzea erabaki da aho batez.

## **5. GLEAren 2019KO URTEKO PLANAREN ILDOAK**

Ordutegi-arrazoiak direla medio, aho batez erabaki da urteko planaren ildoen aurkezpena GLEKen hurrengo bilkurarako uztea.

## **6. BESTE BATZUK; GALDE-ESKEAK**

Aztertzeko beste gairik ez zegoenez, 14:24an osoko bilkura amaitutzat jo da.

**NOEMÍ DE LA FUENTE PEREDA**

**GARAPENERAKO LANKIDETZAREN  
EUSKAL KONTSEILUKO IDAZKARIA**

**JUAN ANTONIO FERNÁNDEZ  
ERDOCIA**

**GARAPENERAKO LANKIDETZAREN  
EUSKAL KONTSEILUKO  
PRESIDENTEA**